

Maeztu eta Martinez

Euskadiko Sei Orduetan

Alberto Martinez eta Asier Maeztu donostiarrek Euskadiko Sei Orduetan parte hartuko dute. Martinezek hirugarren denboraldiari ekingo dio profesionaletan Euskadi Euskaltel taldean. Asier Maeztu berriz pista gizona dugu, Euskadiko txapela jantzi berri du eta Sidneyra joatea du helburu.

Raul Perez

Zein helburu dituzue Euskadiko Sei Orduetan?

Alberto: Haimar Zubeldiarekin ariko naiz eta gure erronka nagusia duintasunez ibiltzea da. Ezinezkoa izango zaigu irabaztea, Anoetan izango diren atzerritarrak pistako maisuak baitira.

Asier: Iazko zazpigarren postua hobetzea da Mikel Astarloa eta bion helburua. Euskadiko Sei Orduen puntako txirrindularien aurka aritzeko aukera ematen digute. Txirrindulariok, gainera sei mila ikusleen berotasuna izaten dugu.

Asier Maeztu:

«Iazko
zazpigarren
postua hobetu
nahi dugu»

Pistan aritzea erakargarria izateaz gain, errepidean hobeto ibiltzeko balio izaten al du?

Al: Pistako larretketetan izaten den tentsioa eta abiadura ikaragarria da oso, ikusgarria da benetan. Pistako saioak onuragarriak dira errepideko denboraldirako, belodromoan



Alberto Martinez eta Asier Maeztu Anoetan paper ona egiten saiatuko dira.

Argazkiak: Imanol Olegi

abiadura irabazten duzu eta hankak azkarrago dabilzala somatzen duzu.

As: Abiadura erakargarria da. Gainera ikusleek txirrindularien ahalegin osoa jarraitzeko aukera dute. Teknika ere garrantzitsua da, gutxiago nekatzen baitzara. Pistan emaitza onak lortzea funtsezkoa da, talde profesionalek kontutan hartzen baitituzte pistako garaipenak.

Zein asmorekin ekingo diozue denboraldi berriari?

Al: 24 urte ditut eta hobetzen jarraitzea espero dut. Ondo baino hobeto moldatzen naiz erlojuaren aurkako lasterketetan. Mendian berriz, sasoi betean nagoenean onenekin ibiltzeko gai naizela frogatu

behar diot nire buruari. Denboraldi hasiera indartsua egingo dut, Euskal Herriko itzulira sasoiak heltzea gustatuko litzaidake eta.

As: Sidneyn izatea gustatuko litzaidake. Jazarpeneko talde aurreolimpikoan nago eta Munduko Kopako hainbat lasterketetan parte hartuko dut, Joko Olinpikoetarako txartela

eskuratu ahal izateko. Bestalde, errepidean ahalik eta lasterketa gehien egin nahi ditut eta pistak ematen duen azkartasuna aprobeztatu nahi dut.

Urtarrila hasieran, zuk, Alberto, Alacantera jo zenuen entrenatzera eguraldi hobea egiten duelako. Hango errepideak hementxoak baino egokiagoak al dira?

Al: Errepideak ez dira hobeak. Hiri erdian ezin da ibili eta ezta saihesbideetan ere. Donostian entrenatzeko bi aukera ditut: bata Beasaindik aurrera eta bestea Euskal Herriko Iparraldean. Iparraldean kotxeek ahaztuak dituzten errepide ugari dago.

Alberto Martinez:
«Pistako saioak onuragarriak izaten dira errepiderako»